



Funtsezko baliabideak

Atal honetan, gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak deskribatzen dira.

Igo artxiboa PDF formatuan

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak imaginazioa edo sormena (diseinuak sortzeko), informatikari buruzko ezagutzak eta merkataritzarako trebezia (besteei gure proiektuaren berri emateko) izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Lan egiteko erabiliko duguna fabrika bat izango da (alkilatuta) eta material berriak sortzeko eta aztertzeko laborategi bat egongo da gehituta. Honez gain, urnak sortzeko erabiliko ditugun materialak eta gure proiektuaren berri emateko erabiliko ditugun inženierazioak baita ere sartuko dira baliabide fisikotan. Hau dena almazenean egongo da, horrela produktuak almazenetik etorriko dira, guk bidaliko diegu diseinua ordenagailuz eginda eta horrela urnak prest egongo dira guretzat saldu ahal izateko.

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik asiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobetxatzeko eskudiru adina lortuko dugu. Kapital txikiarekin hasio garenenez, ingurukoen (familia, lagunak...) laguntzaz ere baliatuko gara eta mailegu bat eskatuko dugu hasiera batean, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Dirua galduko dugun arren, geroago dirua irabazten hasiko garenez, konpentsatuta ikusiko gara behin dena ondo antolatuta dugula